

Ordizian, 2009ko abenduaren 4an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, EZOHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA**            Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Jose J. Lopez fernandez jauna	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Monica Marañon Basarte andrea	PSE/EE /(PSOE) taldea.

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK**

Iñigo Manrique Cia jauna	PP taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTU-HARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jauna

**ITZULTZAILEA:**

Ez da bertaratu.

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

1.2010 urteko ekitaldirako tasa eta zergen aldaketaren behin betiko onarpena.

..... 4. orr.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA

**HASIERA ORDUA: 8,10**

**BUKAERA ORDUA: 8.35**

Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

## 1.-2010 urteko ekitaldirako tasa eta zergen aldaketaren behin betiko onarpena.

### Proposamena

2009ko urriaren 22an Udaleko Osoko Bilkurak 2010 urteko ekitaldirako Tasa eta Zergen Ordenantza Fiskalen aldaketaren hasierako onarpena eman zion.

Aipatutako espedientea jendaurrean ipini da 30 eguneko epean aplikatzeko arautegiak dioen moduan, eta aipatutako epean, abenduaren 3an amaitzen zen epean, ez dute erreklamaziorik aurkeztu.

Hala ere, aipatutako informazio publikorako epeak 2009ko urteko ekitaldiari dagokion ibien tasaren likidazioarekin bat egin du, azaroaren 10ean amaitu zen likidazioa eta herritarrek kexa ugari jarri dituzte, pasa den urtearekiko tasa honek izan duen igoera handiak ondoeza sortu du.

Hori guztia kontuan izanik, Udalak 2010erako hasierako onarpena jaso suen ibiaren tasa aldatzea proposatzen du eta aipatutako tasaren %100eko hobaria proposatzea, 2009an likidatutako gehiegikeria orekatzeko.

Aldi berean Udalak aplikagarriak diren gune eta tasa desberdinak aztertzeko konpromisoa hartzen du 2011 urtetik aurrera egoera orekatuagora iritsi ahal izateko.

### AKORDIO PROIEKTUA

- **Hasieran onartutako ibiaren tasa aldatzea eta gune guztietan %100eko hobaria ematea.**
- **2010 urteko ekitaldirako Ordenantza Fiskalak behin betiko onartzea hitzartutako aldaketarekin.**
- **Ordenantza Fiskalen aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Gipuzkoako Herri Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikulua dioena betez.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna.

2009ko urriaren 22an hasierako onarpena jaso zuen 2010eko Ordenantza Fiskalen aldaketa behin betiko onartzeko Ezohiko Osoko Bilkuraren deialdia egin duela adierazi du.

Behin betiko onartzeko osoko bilkuran onartu behar dela esan du, hasierako dokumentuarekin alderatuta ibiaren tasa aldatu behar delako.

2009ko ekitaldiaren ibiaren tasaren likidazioak herritarren artean ondoeza sortu duela jakinarazi du, 2008ko zenbatekoarekin alderatuta igoera handia izan delako.

Udalak 2009ko tarifak onartzean ez zuela behar bezala aztertu adierazi du, zehazki igoera hau zekarren eta gai honetan komunikazio egokirik ez dela izan azaldu du.

Hori dela eta, 2009ko likidazioak sortutako kaltea neurri batean konpontzeko, tasa honi %100eko hobaria egitea proposatzen du eta eremu guztietan, 2010eko Ordenantza Fiskaletan.

Honakoa onartu ondoren kaltetutako guztiei azalpen gutun bat bidaliko die.

Honekin batera, datozen ekitaldietarako eremu desberdinetan igoera orekatu bat egitea aztertuko da, 2008koa izango da abiatze puntua arrazoizko epe batean (3 edo 4 urte) inguruko udalerrietako kopuruetara iristeko.

#### Kontuhartzaile jauna

Urtero Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamena blokeka egiten dela azaldu du, baina 2008an Zerbitzu Delegazioa ibien gaia aztertzen ari zenez, bere lana eta erabakia errespetatu zela.

Ogasun Delegazioak beharbada bere erantzukizunaren zati bat onartu behar du, ibia ordaindu behar dutenen ondorio ekonomiko zehatzak ez aztertzean.

#### Txurruka jauna

Puntu honetan Txurruka jaunak barkamena eskatu du.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartuzat eman du.**

Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak osoko bilkura amaituzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta bik behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.